



Autoerregulazioa ikaskuntza prozesuan: I(ra)kasten ikasiz



Eka. 27 - Eka. 28 2024

Kod. H03-24

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 27 - Eka. 28 2024

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-prozesua autoerregulatzea ezinbestekotzat jo izan da testuinguru akademikoan daukan eraginkortasunagatik ez ezik, bizitza osoan baliagarriak diren trebetasun eta ezaugarri pertsonalak lantzeagatik ere.

Aldagai hau are beharrezkoago bilakatzen da, une soziohistoriko aldakor eta iragarrezin honetan. Hori horrela, Uda Ikastaroaren helburu nagusia "ikasketa autoerregulatuaren" kontzeptuan sakontzea da. Horretarako, izaera dinamiko eta parte-hartzailea duen Ikastaro honetan, batetik, ikasketa autoerregulatuaren ekarpen teorikoetan sakonduko dugu. Bestetik, motibazioa, aldagai emozionalak eta ikasteko estrategiak ere jorratuko ditugu. Honen bitartez, ikasketan autoerregulazioa lantzearen garrantzia ikusaraziko da, horren inguruko lanketarako ideiak ere eskainiaz.

Helburuak

Ikasketa autoerregulatuaren kontzeptura hurbiltzea.

Ikasketa autoerregulatuaren ezinbesteko atal diren motibazioa eta ikasteko estrategiak aztertzea.

EAEko curriculum esparruan ikaskuntza-prozesuan autoerregulatzeak duen presentzia aztertzea.

Ikaskuntza autoerregulatzeko prozesuan dauden faseak eta osagaiak lantzea.

Autoerregulazioan aldagai emozionalek, kognitiboez, konduktualek eta testuingurukoek duten eragina aztertzea.

Ikaskuntzaren autoerregulazioak gure ikasgelan daukan eraginaren inguruan hausnartzea.

Lankidetzak



Programa

2024-06-27

08:45 - 09:00 Erregistroa

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV/EHU - EHUko irakaslea

09:25 - 10:15 “Taldeak martxan jarriz: has gaitezen lanean! “

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV-EHU - EHUko irakaslea

10:15 - 11:45 “Zer da ikasketa autoerregulatua? Hurbilketa teoriko-praktikoa“

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV-EHU - EHUko irakaslea

11:45 - 12:15 Atsedena

12:15 - 13:15 “Ikasten ikastea esparru curricularrean: nora goaz?“

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV-EHU - EHUko irakaslea

13:15 - 14:15 Mini-erronkara so! Hausnarketa partekaturako tartea

14:15 - 14:45 Sintesia

2024-06-28

09:00 - 09:30 Bigarren egunaren aurkezpena

09:30 - 10:30 “Motibazioa, autoerregulaziorako giltza“

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

10:30 - 11:30 “Autoerregulazioan funtsezkoak diren prozesu eta aldagaiak“

Amaia de la Fuente Gaztañaga | UPV-EHU - EHUko irakaslea

Nerea Larruzea Urkixo | UPV-EHU - EHUko irakaslea

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 13:00 Elkarlanerako tartea: landutakoa erronkan txertatuz.

13:00 - 14:00 Partaideen hitza: erronken aurkezpen laburrak

14:00 - 14:30 Itxiera

Zuzendaritza



Nerea Larruzea Urkixo

Euskal Herriko Unibertsitatea

Psikodidaktika: Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Espezifikoetan Doktorea, Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Egun, unibertsitate bereko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologiako Departamentuko irakaslea da, eta baita Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundean (ISEI-IVEI) teknikaria ere. Bere ikerketa-ildoak autoelkarrizketan, erregulazio emozionalean eta ikaskuntza autoerregulatuan oinarritzen dira, baita generoak aldagai horietan duen eraginean ere. Arlo horretako formakuntzak diseinatu eta aurrera eraman ditu, hezkuntza-etapa desberdinetako irakasleei zuzenduak izan direlarik.



Amaia de la Fuente Gaztañaga

Euskal Herriko Unibertsitatea

Psikodidaktika: Hezkuntzaren psikologia eta Didaktika Espezifikoetan doktorea, eta Gizarte Hezkuntzan graduatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Gaur egun, irakasle da unibertsitate bereko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologiako Departamentuan, Lehen Hezkuntzako eta Gizarte Hezkuntzako Graduan eskolak ematen dituelarik. Batez ere trebetasun sozioemozionalekin eta horiek ikasleen osasunean duten eraginarekin lotutako artikulu zientifikoak argitaratu ditu, generoak horietan duen eraginean ere zentratu izan da. Nazioarteko eta nazioko kongresuetan ere parte hartu du. Lanean ari diren irakasleentzako hainbat prestakuntza-ikastaro diseinatu ditu, eskola-testuinguruan trebetasun sozioemozionalak lantzeko.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-06-27 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	50,00 EUR
UIK euskaraz	-	71,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	61,00 EUR
Matrikula exentzia	-	50,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	61,00 EUR
Elkar	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	61,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	61,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa